

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Xabier Letek idatzi eta 1982. urtean Buruntza Antzerki taldeak taularatutako "Gabon Txirrita" obra berriro ikusteko aukera izango da irailean Urnietan eta Donostian

2016ko martxoaren 11, 474 zenbakia XI. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

DONOSTIA 2016 EKIMENA SAROBEN

Zesta puntako jokalarien iragana eta oraina, Andoain herrian

Luis eta Fernando Urbistondo anaia, Igor Lizasoain eta Jon Barrondo Andoaingo zesta puntako pilotariak Jai Alai Blues dokumentalaren ostean ikusleen galderei erantzuteko prest agertu dira.



Aiurri astekariak datorren astearteko hitzordua heldu aurretik bildu ditu, zesta puntaren iraganaz eta geroaz aritzeko. Arrate pilotalekuan elkartu da laukotea. Zesta puntako saskiak eskuan hartu orduko, partida jokatzeko prest agertu dira, sasoiko sentitzen baitira. Partida baterako laukote perfektua izango litzateke: bi atzelari abiltasun handiak (Fernando eta Jon) eta beste biak aurrelari erregularrak (Luis eta Igor). Ez lukete ikuskizun kaskarrak eskainiko, baina zesta bazterrean utzi eta jardunean eman zituzten lehen pausoko gogoratuz tertuliarik ekin diote.

Arrateko pilotalekurik ez zegoenean, Kontzejupean hasi ziren Urbistondo anaia, Rafael Elizondo irakaslearekin. Oso gaztetatik eduki zuten garbi Ameriketara amaituko zutela, hori zen euren itzaropena behintzat, Luisek adierazi duen bezala: "Oso gaztetan hartzen zen profesioanaltasunaren bidea, ikasketak edo zesta punta aukeran jarri eta gero. Ikasketan kili-kolo ibiltzen ginenontzat nahiko irteera bideragarria

IGOR LIZASOAIN (ANDOAIN, 1981). Gipuzkoako txapel-dun lau aldiz, eta Euskal Herriko azpitxapel-dun behin. Pilotari gisa jarraitzen du eta Gazteleku elkarteko zesta puntako arduraduna da.

JON BARRONDO "BARRONDO" (ANDOAIN, 1967). Debuta AEBtan. 1983-1998. Ameriketara 13 urtez.

izaten zen zesta punta. Anaia eta biok jada Markinako eskolan ari ginela ikusi genuen normalena zela handik Ameriketarako jauzia egitea. Gogoa eta ilusioa sentitu genuen abentura berriari ekiteko. Gainera, bagenuen anai bat puntista izan zena Miami, gero hogeitertekin istripuz hil zena; hari esker mundu haren ezagutza genuen".

Jon Berrondok aitortzen du ez zuela hautatu beharrik ere izan ikasketak edo zesta puntaren artean. "Nahiko kaskarra nintzen ikasketetan, eta aitari ere ia berdina zitzazkion notak. Hura ondo-ondoan eduki nuen profesioanaltasunean murgil nedin".

[KIROLAK, 10. ORRIALDEA]

LUIS URBISTONDO "URBI" (ANDOAIN, 1956). Debuta Bartzelonan. Profesionaleko ibilbidea: 1974-1994. AEBtan 18 urtez.

FERNANDO URBISTONDO "FERNANDO" (ANDOAIN, 1954). Debuta Bartzelonan. Profesionaleko ibilbidea: 1975-1995, AEBtan 19 urtez.

DOKUMENTALA BASTERON, MARTXOAREN 15EAN



Sinposia: "Jai Alairen historia sinestezina, mundu horretan aritutako pertsona ospetsuenen bitartez. Ugari dira haien biografien eta Jai Alairen historiaren arteko paralelismoak.

Iraupena: 99 minutu.
Zuzendaria: Gorka Bilbao.
Ekoizpena: Berde Produksioak.
Andoainen: 19:00. Bastero. Martxoak 15, asteartea.

Osasunaren aldeko manifestazio berria Andoainen

Larunbat honetan Etxeberrieta plazatik irtenda, 17:00etatik aurrera. Ipar Haizea plataformak deitu du hainbat eragileren atxikimenduarekin.

[ANDOAIN, 8. ORRIALDEA]

Krossean gogotsu dabilzan urnietar gazteak



Elurra, lokatza, hotza..., negu giroan aritu ziren Urnietako gazteak.

Urnietako Ander Ezenarro, Unai Iraola, Jon Tolosa eta Gorka Lopez de Arregi gaztetxoak aurreko igandean eskolarteko Euskadiko kros txapelketan parte hartzen aritu ziren.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

Aste Santuko dantza tailerrak

12-14 urte
Martxoak 29, 30, 31, apirilak 1.
10:30-12:30

Ate irekiak:
Apirilak 1, 12:30

Tailerretan izena emateko martxoaren 16a baino lehen Sarobera bertaratuz



HIP HOP

sergio nguema



ane anza
dantza
garaikidea
lehen urratsak

8-11 urte
Martxoak 21, 22, 23
11:30-13:30

12-15 urte
Martxoak 21, 22, 23
09:30-11:30

Ate irekiak:
Martxoak 23, 13:30



"NIRE AIPAMENAK IZANGO DIRA BESTE LAROGEI URTIAN"

"Gabon Txirrita" irailean Urnietan eta Donostian

Xabier Letek idatzi eta 1982. urtean Buruntza antzerki taldeak taularatutako "Gabon Txirrita" obra berriro ikusteko aukera izango da irailean Urnietan eta Donostian. Mikel Laskurain, Miren Gojenola,

Jaione Jauregi eta Maribel Tardiok osatutako lantaldea arduratuko da antolakuntzaz eta zuzendaritzaz. Aktoreak, ia guztiak, "Mari-zulo", "Urnietan 59" eta "1936" obretan aritutakoak izango dira.

Joxe Manuel Lujanbio Rete-gi "Txirrita" bertsolaria, 1860ko abuztuaren 14an jaio zen Hernaniko Ereñotzu auzoko Latze baserrian. Gurasoak, Bautista Lujanbio Ganborena hernaniarra eta Juana Josefa Retegi Iraola oiartzuarra izan zituen. Zazpi anai-arreben artean zaharrena izan zen eta hamahiru urterekin, Errenteriako Txirrita baserri joan zen bizitzera, familia osoarekin batera. Garai artako "Bertsolariya" aldizkariko bertsu emaile nagusia izan zen, eta bat-bateko jardunekin batera, bertsu jartzailerik oparoenetakoa. Bertsolaritzaren historiako figurak handi eta ezagunenetakoa.

Kanturako beti zegoen prest. Eskolatu gabea izan arren, irakurtzen bazekien, eta herritar soil baten buruan arrotz ziren izenak eta erreferentziak zeuzkan, hala nola, erromatarren historia, Foruen galerako pertsonaiak, eta abar. Alde horretatik Txirrita bertsolari klasikorik politikoena izan zen.

1935 urtean, Euskal Herriko I. Bertsolari txapelketan, Baserri txapelkunaren atzetik, txapelkunorde izan zen, 75 urte zituela. Eta hurrengo urtean, II. Txapelketako txapela berari eman zioten, bertsolaritzari egindako ekarpenagatik omenaldi gisa.

Bere azken urteak Donostiako Altza auzoko Gazteluene baserrian igaro zituen, arreba baten etxean. Bertan eman zuen azken arnasa, 1936ko ekainaren 3an, Gerra Zibila hasteko hilabete eta erdi falta zela. Zahartzaroan bertsu batean honela zioen: *Gazte gazterik hasi nintzan, eta oraindaño bitartian, zenbait umore eder jarri det Kantabriako partian, pixka batian ez naiz ahaztuko sartuagatik lurpian, nere aipamenak izango dira beste laurogei urtian.*

URNIETAN ETA DONOSTIAN

Eta Donostia 2016, aurtengo Europar Kultur Hiriburuak, Txirrita bertsolariaren heriotzaren 80. urteurren horrekin bat



1982ko antzezlanaren iragartzeko erabili zen kartela.

eginez, "Gabon Txirrita" antzezlanaren berreskuratu eta eszenaratzeko proposatu du. Urnietako Udalaren laguntza du proiektu honek. Urnietan azken

urteetan egin diren hiru ikuskitan handietan parte hartu duten 30 aktoretik gorako taldea martxoaren hasieratik lanean ari da buru-belarri, Miren Go-

jenola eta Mikel Laskurain aktore eta zuzendari ezagunen zuzendaritzapean. Bi emanaldi aurreikusten dira, biak irailean, eta biak kalean. Urnietakoa, Sanmiel jaien bueltan egingo da herriko plazaren batean, eta Donostiakoa ere irailean izango da, Trinitate plaza ezagun bezain mitikoan.

1982 URTEAN TAULARATUA

Xabier Letek idatzitako antzerki obra hau, jada taularatua izan zen Urnietan eta beste hainbat herritan 1982 urtean. Lourdes Iriondok sortutako Buruntza antzerki taldea arduratu zen horretaz. Xabier Letek, obra idazteaz gain, berak zuzendu eta aktore lanetan ere jardun zuen, obrako hainbat paper berak eginez. Urnietan eta Hernaniko hamalau aktorek taularatu zuten "Gabon Txirrita" antzezlanaren, eta kasu gehienetan, pertsonaia bat baino gehiago errepresentatu beharra izan zuten, lan bikaina burutuz, garaiko prentsan irakurri litekeen.

Orduko hamalau aktoreak honakoak izan ziren: **Maritxu Larzabal, Bartolo Orkaizagirre, Lourdes Ayensa, Joxi Lizeaga, Nekane Goñi, Jokin Izagirre, Kontxi San Sebastian, Joxe Manuel Kortajarena, Gabriel Mujika, Xabier Lete, Julian Melero, Joxe Manuel Lajas, Gotzon Nazabal** eta **Juanjo Donoxi**. Argietan **Jesus Fraisoli** aritu zen, dekorazioan **Periko**

Barrisoea, pianoan **Antton Valverde** eta apainketaz **Elixabete Unanue** arduratu zen.

1982 urteko emanaldietarako prestatu zuten esku-programak azaltzen ditu obraren zergatiak eta pista batzuk eman ere bai obraren nondik-norakoaz: "Txirrita zenari auzi bat asmatzea bururatu zitzaigun. Euskal Herriko antzerki zaharrean egiten zen gisan. Karroxa, asto-laster edo tobera-munstra deitzen ziren adierazpenetan, gaia edo aitzakia horrelakoa izan ohi zen gehienetan: pertsona berezi baten bizitzako pasadizoak kontatzea, era xeble batean, jakina.

Era horretako errepresentazioak fartsa giroa hartzen zuten sarri. Dena zen xeblea: gaia, aktoreen imintzioa, gertakizunen karakterizazioa.

Horrek ez du esan nahi, hala ere, zenbait aldiz hura guztia auzitara eramana zen pertsonarentzat mingarria izan ez zitekeenik. Euskal herri teatro zaharrean badago halako moral kutsu estu bat; ez beti, jakiña, baina bai sarri.

Eta zergatik guk horrelako istilu bat Txirritari buruz asmatu? Atsegin zaigulako, jakina. Txirrita bera, pertsona eta pertsonaje bezala atsegin zaigulako (ez baizen aingeru bat, noski). Eta atsegin zaigulako, nunitz, bizitzari fartsa aldetik bere trazak hartzea ere.

Ez gera gauza handi eta garrantzitsu bat egitera joan. Txirritari buruz istorio bat kontatzeraz gero, eta, ahal balitz, zuei ikusleei farre pixka eginazteraz. Horrela, bidenabar, guk ere ongi pasako dugu. Guk asmatutako Txirrita hori atsegin bazaizue, ontzat hartu; bestela berriz..., gaizki esanak, aldrebes esanak barkatu..., fartsa hastera doa. Gabon Txirrita."

PARTE HARTZEA ZABALIK DAGO

Norbaitek antzezlanean parte hartu nahi badu, horretarako aukera izango du. Harremantarako:

gabontxirrita@gmail.com



DIAPORAMA DATORREN ASTEAZKENEAN ARRATSALDEKO 19:00ETAN HASITA

“Urnietarrak Wukrora joatea animatuko nituzke”

Ioritz Paulis urnietarrak hiru hilabeteko egonaldia egin du Etiopian, Wukro hirian. Gazteentzat esperientzia “ahaztezina” izan daitekeenez, datorren asteazkenean (martxoak 16) Saroben eskainiko

duen hitzaldira gonbidatu nahi ditu. Egun berean, Etiopia Utopia fundazioak bekaren berri emango du. Aukera berria zabaltzear da Urnietako gazteentzat.

Informatika ikasketak eginda, Wukron hiru hilabeteko egonaldia egin duzu irailetik abendura. Zein izan da zure lana?

Ioritz Paulis. Irakasle lanak egin ditut; goizez eta arratsaldez. Batetik, oso oinarrizko informatika nozioak erakutsi dizkiet: sagua mugitzen, idazten, Word tresna irekitzen... Bestetik, ordea, unibertsitate ikasketak edo goi-mailako moduluak egindako ikasleak nituen, informatika ikasketak praktikan jarri genituen.

Zer erakutsi zenien zehazki?

I.P. Gauza erabilgarriak egiten erakutsi nien: zituzten baliabide urri horiek konpontzen, bererabiltzen, balio ez duten ordenagailuetatik baliozko piezak ateratzen... Oso dibertigarriak izan ziren klaseak, joko asko ematen zutelako. Goizetako klaseetan, aldiz, oinarrizko pausoak ere zailak egiten zitzaizkien. Hemen oso ohituta gaude teknologia berrieta eta instintiboki jokatzeko. Beraiei, ordea, hasiera-hasieratik azaldu behar izaten nien dena, eta horrek lehenengo pausoa zein izaten den pentsaraztea eragin zidan.

Zer moduzko harrera egin zizuten hirian?

I.P. Ohituta daude boluntarioak ikustera. Segituan nabaritzen dute kanpotarrak gairela eta ongi etorria ematen digute, ilusioarekin. Han egin dugun lanarekin aurrerapen handiak etorri direla ikusi dute eta hori eskertu egiten dute.

Gogorra egin al zitzaizun bertara ohitzea?

I.P. Nik banekien baliabide gutxi izango genituela, baina oinarrizkoenak edukitzea espero nuen. Ura eta elektrizitatea bagenituen, baina ezin da egunero horiekin kontatu, batzuetan, joan egiten direlako. Bat-batean, argindarra joan daiteke; bost minuturako edo bost asterako. Hau da, oinarrizko



“Han egin dugun lanarekin aurrerapen handiak egon direla ikusi dute eta hori eskertu egiten dute”

nintzen. Izan ere, inoiz faltan botako ez nituela uste nuen zenbait gauzen hutsunea nabaritu nuen; urarena eta elektrizitatearena, adibidez.

Itzuleran zein hausnarketa egiten duzu bi bizimoduak alderatuta?

I.P. Konturatu naiz hemen txiki-kekerengatik kezkatzen garela. Wukron egonaldia eginda, ikusi dut bertan arazo larriagoak dituztela eta, hala ere, moldatzen direla oztupoak gainditzeko. Ikuspegia aldatu zait eta ikusi dut behar dugun guztia daukagula; ez zaigu ezer falta eta ez daukagu kezkatuta egoteko arrazoirik.

Zure jarrera aldatu egin al da itzuli zarenetik?

I.P. Baietz uste dut. Lasaiago hartzen ditut gauzak eta jarrera positiboagoa daukat orain. Badakit denborarekin hemengo bizimodura egokituko naizela berriro. Garrantzitsua da tarteka kanpora joatea.

Itzuliko al zinateke?

I.P. Bai, egonaldi baterako joango nintzateke. Bizitzeko filosofia lasaia dute, eta ez dago hemen dugun estresik. Bere abantailak ditu, kezka gutxiago izaten dituzulako. Urnietarrak horrelako esperientzia bat bizitzera animatuko nituzke.

Zein arrazoi emango zenieke?

I.P. Ez dute sekula horrelakorik biziko. Aukera hau aprobetxatu beharra dute, bestela ez baitute edukiko. Bekaren baldintzak oso onak dira, gastu propioak izan ezik, gainontzeko guztia ordainduta dagoelako. Beraz, bi aldiz pentsatu gabe, Wukrora joatea animatuko nituzke. Ez dira damutuko.



baliabide gabe gera zaitezke edozein momentutan.

Urik gabe egon zineten hiru astez.

I.P. Bai. Ur edangarririk ez genuen, dendetan erosi behar izaten genuen. Ez nuen uste horren luzerako jo zezaketenik arazok, baina joan aurretik banekien horrelako egoerak lasaitasunez hartu behar nituela eta, beraz, beraien bizimodura egokitzen ikasi nuen.

Zer izan zen zailena?

I.P. Hizkuntzaren arazoa. Zo-

nalde horretan Tigriña erabiltzen dute komunikatzeko; ondorioz, nirekin ingelesez komunikatzen ziren. Baina beraientzat, ingelesa hirugarren hizkuntza da eta gutxi gora-behera moldatzen diren arren, hitz egitea zaila da askorentzat.

Aldaketa handia sumatuko zenuen, hemendik joanda. Zerk harritu zintuen gehien?


I.P. Bitxia iruditu zitzaidan eskua emateko zuten ohitura. Hemen ez bezala, mutilak el-

karren artean eskua emanda ibiltzen ziren. Hemen, orain arte behintzat, ez da oso ondo ikusi izan. Asko gustatu zitzaidan hori; hemen ere normaltasunez egin beharko genituzke horrelako keinuak, zentzu erromantikorik gabe.

Hiru hilabetetan, ezere hutsunerik nabaritu al zenuen?

I.P. Komunikatzeko zailtasunak nituen, lagunekin edo familiarekin hitz egiteko. Bestalde, hemengo janariaz edo nire oheaz ere gogoratu

Antia lehiaketarako izen ematea zabalik dago



2014ko sari-banaketa ekitaldiko irudia.

Antia literatur lehiaketa hogeita bigarren ediziora iritsi da, eta parte hartu nahi duten idazle gazteek martxoaren 18ra bitarteko epea izango dute. Udalak oinarriak eta sariak iragarri ditu: "Hamabi urtetik beherakoek gutxienez bi orrialdeko ipuin

bat idatzi beharko dute eta gehienez, laukoa. 12-16 urte bitartekoek aldiz, 3 eta 8 orrialde bitarte idatzi beharko dituzte". Diru sariak eta erosketa baleak banatuko dituzte hiru lehenengoentzat. Irabazleen berri apirillean emango dute.

Zuhaitzaren eguna

Azken egunetako euriteak dirrela medio, Zuhaitzaren eguna astebetetz atzeratzea erabaki dute. Martxoaren 14an

goizeko 11:00tan ikastetxeetako ikasleak Berrasoetako parkean elkartuko dira, kimu berriak landatzeko.

Kiroldegiko taberna

Udalak kiroldegiko taberna alokatzeko aukera eskainiko du berriro. Eskatzaileak martxoaren 18a baino lehen eman behar du izena, hainbat baldintza betetzen dituela ziurtatuz: Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta

emanda egotea, urtebeteko esperientzia izatea ostalaritza sektorean edota elikagaien manipulatuzaile tituluduna izatea. Kontratuaren iraupena kiroldegiko instalakuntzetan obrak hasi bitartekoa izango da.

Baratze ekologikoak

Udalak 40 metro karratuko 47 lur sail eskaintzeko aukera dauka, eta dagoeneko urnietarren aldetik 35 eskaera jaso ditu. Baratzeetan bertako produktuak landatzeko aukera eskainiko da. Hori bai, lur-sail horiek norberaren erabilerarako soilik izan-

go dira, eta debekatuta egongo da bertatik ateratako fruitu edo produktuen salmenta. Baratzeen lursaila eta azpiegitura egun hauetan prestatzen ari dira. Baratzea esku-ratzeko izen-ematea zabalik dago apirilaren 4ra bitarte, Bertan harrera bulegoetan.

Igandean 19:00etan "Ene maite kuttun guztiak" ikuskizuna

Poesia emanaldia Saroben, Harkaitz Canok gidatuta

Poesia emanaldia

"ENE MAITE KUTTUN GUZTIAK"
Martxoak 13, igandea.

19:00. Sarobe.

Antolatzailea: Udala.

Partaideak: Harkaitz Cano idazlea, Ainara Gurrutxaga aktorea eta Iban Urizar musikaria.



Harkaitz Cano idazlea igande honetan Saroben arituko da.

Harkaitz Cano idazle ezagunak iaz Susa argitaletxearen *Munduko Poesia Kaierak* bildumaren barruan Amerikako Estatu Batuetako Anne Sexton idazlearen poemen antologia euskaratu zuen. Ainara Gurrutxaga aktorea eta Amorante taldeko Iban Urizar musikariarekin batera "Ene maite kuttun guztiak" izena duen ikuskizuna osatu du. Liburuaren aurkezpenean adierazi zutenenez, "Anne Sexton (1928-1974) XX. mendeko poeta iparamerikarrik garrantzitsuenetakoa da. Bere psikiatrak iradokita idazten hasi eta urte gutxitan kutsu autobiografiko nabarmeneko obra ondu zuen. Indartsua beti eta polemiko

koa sarri, desesperazioari ironiaz erantzuten saiatu zen. Sexualitateari, bulkada suizidei, familia harreman gatazkatsuei eta arazo psikikoei mugatuta-

ko bizitzeko egarriari eskaini zizkien poema asko. Berezi aipagarriak dira, adibidez, tratatu zuten medikuei zuzendu zizkien gutun poematuak".

Martxoaren 8a Urnietan



Udal adierazpena irakurri zuten astearte iluntzean. Ekitaldiaren bideoa ikusgai dago aiurri.eus webgunean.



Urnietan-Wukro-Urnietan

Diaporama - Bidaiateka

Martxoak 16, asteazkena

19:00

Saroben. DOAN

Hizlaria: Ioritz Paulis urnietarra



Urnietako
udala



Gaztegunearnietan



Idiazabal, 13 / behea
20130 Urnietan (Gipuzkoa)

Tel.: 943 333 973

gazteinformazioa@urnietan.eus

KALEJIRA ETA OMENALDI EKITALDIA ANDOAINEN

Martxoak 8 emakume

Esker oneko hitzak jaso zituzten aurten omendu dituzten emakumeek. Goian behean ari zuten euriak ez zuten eragotzi Carmina Dominguez, Marga Oyarzun, Beatriz Garcia, Ixiar Arin, Juanita Iku-

tza, Tere Otamendi, Itziar Gorostegi, Milagros Sorarrain eta pala taldea merezitako protagonistak izan zitezten larunbateko ekitaldian.

Jendetza bildu zen Bastero plazan. Izendatuen familiak, adiskideak, herrikideak..., inork ez zuten hutsik egin nahi izan. Eguraldi txarra dela eta bertan behera geratu zen jada tradizio bihurtu den diztira handiko kalejiira. Horren ordez, plazatik Ondarretako ikastetxera doan bide laburra egin zuten. Omenduen artean adinez helduena den Milagros Sorarrainek eraman zuten lekukoa, Batukada feministak jarri zuten doinu bi-ziaren erritmora.

Jone Larrañaga aurkezleak banan bana izendatu eta beren ezaugarriak definitu zituen iritsi zen ekitaldiko unerik hunkigarriena. **Carmina Dominguez** "lan gogor eta konstantearen eredu" da; **Marga Oyarzun** "artistaren itzalean ari den beste artista handia"; **Beatriz Garcia** "aitzindaria emakumeen futbolearen eta Añorga taldearekin egundoko arrakasta lortutako jokalaria ohia"; **Ixiar Arin** "itzalean gehienetan, euskara bultzatzen ahalegin nekaezinean aritu zen frankismoko urte latzetan"; **Juanita Ikutza** "jende-ari laguntzea betidanik barrutik atera zaion pertsona"; **Mila-**



Aurtengo omenduak, omenaldi ekitaldiaren amaieran. Bideoa ikusgai dago aiurri.eus gunean.

gros Sorarrainek "52 daramatza Donostiako San Martingo merkatuan baserriko produktuen saltzaile gisa, hori da bere bizimodua"; **Tere Otamendi** eta **Itziar Gorostegi** ama-alabak "14 urte daramate Saharako herriari elkartasuna erakutsiaz eta Hurria-Sahara elkartean lanean". Azkenik **pala taldea**: "bere baitan gazteak eta helduak astero biltzen dira Arraten, sekulako giroan".



Zuena taldeko emakumeek hotza astindu zuten.



Musikariek ohiko saioa eskaini zuten Basteroko atarian.



Esti Mujika zinegotziak eman zion hasiera ekitaldiari.



Batukada feminista Andoaingo eta inguruko herrietako kidez osatuta.



Aita Larramendi ikastolako ikasleak antzerki saioa egiteko prest.



Leizaran ikastetxeko ikasleak hamaiketako eskaintzeko prest.



La Sallekoek bi bertso abestu eta aurrekoa dantzatu zuten.

'MARTXOAK 8 EMAKUME' KALEJIRA ETA OMENALDI EKITALDIA ANDOAINEN

Basteron aitatasuna eta maskulinitatea hizpide



Aurreko ostiralean Basteron erakusketarekin eta solasaldiarekin abiatu ziren martxoaren 8arekin lotutako jarduerak.

Pello Ulazia artistak "Isilean" erakusketa ireki zuen ostiral arratsaldean, Basteron. Etxe-ko lanen dimentsio politikoa erakusteko asmoz, etxe barruko lanak azaleratu ditu, argazki, bideo, arropazko dorre eta zapata zuriekin osatutako obraren bidez: "Zoritxarrez, oraindik ez da ohikoa gizonezko batek horrelako lan bat hartzea". Arte munduan ibili izan da betidanik Pello eta, oraingoan, etxe jarduerak duten dimentsio politikoa islatu nahi izan du. "Gizonezkoek egiten duten lana orain arte ikusgarriagoa izan da, kanpoan egin izan dutelako; baina etxe barrukoa ere erakutsi beharra dago", azaldu zuen.

Erakusketatik abiatuta, aitatasunaren eta gizonezkoaren paperaren inguruko mahai-ingurua egin zuten Pellorekin batera, **Izaskun Landaida** Emakundeko zuzendaria, **Angel Toñia** Jaurlaritzako sailburua eta **Haizea Barcenilla** arte kritikaria. Izaskun Landaidak Andoaingo Udala zoriondu zuen Pello

Ulaziaren lana erakusgai jarzteagatik. "Interesgarria iruditzen zait martxoaren 8ko programarako gizona batek egindako erakusketak hautatzea. Zentzu horretan, Andoaingo Udala zoriondu nahi dut erakutsi duen jarreagatik".

ALDAKETA PIXKANAKA

Haizea Barcenilla kritikariak balioekin lotu zuen erakusketak: "Beti esaten dugu balio aldatetaren beharra dugula, egunero egiten ditugun gauza horiek beste era batera egin ahal izateko. Hemen balio edo kultura aldaketa bat egon dela uste dut". Oraindik zaintza lanez arduratzen direnak batez ere emakumeak direla adierazi bazuen ere, belaunaldiz belaunaldi gizonen papera aldatzen joan dela aitortu zuten hizlariak. Horren aurrean, Angel Toñiak adierazi zuen gaur egun etxe lan banaketa bien artean egitea posible dela: "Garai batean, gizonezkoa zen etxetik kanpo lanera joaten zena, zuzenean; orain, ordea, haurren zaintza bien artean adosten den zerbait da".

Saria Arkaitz Lasarteri



Berdintasuna, feminismoa, ahalduz, parekidetasuna, autodefentsa, aniztasuna... Adiera horien guztien batura da aurtengo edizioarako hautatu den kartela. Emakumeen Nazioarteko Egunaren irudia, hizki bidez islatzea erabaki baitu Arkaitz Lasarteri.

"Omenaldiari esker egun borobila igaro nuen"

Juanita Ikutza andoainarra omenaldutako 8 emakumetako bat da, betidanik laguntzeko erakutsi duen prestutasunagatik. Haurrak zaintzen, josten erakusten, erizain lanetan edo herritarrei laguntzerakoan erakutsi duen eskuzabaltasuna eskertu nahi izan diote.

Zer sentitu zenuen herritarrek aukeratutako emakumeen artean zu zeudela esan zizutenean?

Egia esan, omendua izateak poztu ninduen arren, martxoaren 5ean egin beharrekoek izutu egin ninduten. Ez zait protagonista sentitzea gustatzen eta, hasiera batean, ezezkoa esan nuen. Horrelako ekintzak taldean egiteko gai naiz, baina bakarka lotsa handia ematen dit. Gero, ordea, nire izena jarri zutenei mespretxu egitea zela pentsatu nuen. Familiakoek animatuta, baiezkoa eman nuen. Hala ere, ez dut horrenbesteko meriturik horrelako omenaldia jasotzeko.

Denek diozue ez duzuela merezi. Benetan bihotzetik atera zaiuzelako izango da, ezta?

Omenaldian eskertu nahi izan dizkidaten gauza horiek guztiak gustura egin ditut eta ez dira inolako esfortzua izan niretzat.

Beti egon zara besteei laguntzeko prest eta eskuzabaltasun hori omendu nahi izan dizute, ordea.

Bai. Norbaitek laguntza eskatzen badit, beti prest agertzen naiz. Baina ez da meritua, esfortzurik suposatzen ez didalako. Dena den, nire izena proposatu dutenei eskerrak eman nahi dizkiet. Gainera, Andoaingo Udalean orain emakumeen izenak ere egongo dira erregistroan gordeta eta hori garrantzitsua da. Aspaldidanik egon dira meritu handiko emakumeak herrian eta bada garaia horiek guztiak izendatuta geratzeko.

Caritasen josten erakusten daromatza hiru urte. Gustura aritzen al zara?

Izugarri gustura aritzen naiz. Talde oso polita dugu eta giro aparta dugu geure artean. Hiru emakume aritzen gara laguntza ematen eta, egia esan, laguntza eskaintzeak niri ere asko ematen dit. Andoaingo Gudurako arropak josten ere oso pozik sentitu naiz, barre asko egin baitugu gure artean. Gai-



Juanita Ikutza, aurreko larunbateko omenaldi ekitaldian.

nera, kalean arropak oso politak geratu zirela ikustea pozgarria izan zen. Zaldi gainean gure arropak ikustean sentsazio polita sentitu nuen.

Erizain ikasketak heldua zinela egin zenituen. Esfortzu handia egin zenuen, ezta?

Erizain laguntzailea izateko ikasketak egin nituen Donostiako politeknikoan. 50 urterekin konturatu nintzen ez nuela ikasketen inongo dokumenturik. Hala, graduatua ateratzeko informazio bila joan nintzean, erizaintza egin behar nuela erabaki nuen. Sakrifizio handia izan zen baina, era berean, gustura egiten nuen, ondo moldatu nintzen.

Euskararen alde ere lanean aritu zara.

Betidanik euskaltzalea izan naiz eta, debekatuta zegoen garaian, Ixiar Arinekin batera, irakasten aritzen ginen. Bolada batez haur txikiekin aritu nintzen eta oinarrikoena erakutsi

nien. Ahal nuen moduan laguntzen nuen.

Hori guztiagatik, larunbatean omenaldia egin zizuten. Zer sentitu zenuen protagonista izanda?

Onartu beharra dut omenaldiari esker egun ederra igaro nuela. Paperean sartu nintzen eta beste pertsona bat nintzela sentitu nuen. Oso-oso ondo pasa nuen. Ezagunak gerturatu zitzaizkidan merezi nuela esatera eta, azkenean, neronek sinetsi egin nuen. Gauean oraindik zorion mezuak jaso nituen. Beraz, pertsonalki oso positiboa izan da, gertukoak poztu egin direla ikusita.

Pena izan zen eguraldiagatik ikusgarritasuna galdu zuela, baina kalejirak lotsa apur bat ematen zidanez, eroso eta gustura sentitu nintzen. Gainera, herriko jende ugari gerturatu zen, omenaldian jende askok parte hartu zuen... Oso polita izan zen. Gero bazkaria egin genuen eta egun borobila igaro nuen.

Antzerkia eta bertsoa larunbateko ekitaldian

Badira hiru aste Mikel Urdangarin kantariaren doinupean La Salleko ikasleek bi bertso abestu zituzten larunbateko omenaldi ekitaldian: Berdin du izan harro, umil, fin zabar, goxo, gogor, xume berdin adineko, heldu, gazte, nerabe edota ume. Naturak hala erabakita munduratu ginen eme

eta gaur harro senti gaitezen garelako emakume.

Emakumeen eguna da ta halaxe elkartu gara, egun honen parte izateak sortzen du barne zirrara. Baina ezin da lana mugatu soilik egun honetara, gogoan izan gure aldarria eguneroko lana da.

'MARTXOAK 8 EMAKUME' KALEJIRA ETA OMENALDI EKITALDIA ANDOAINEN

Berdintasunaren puzzlea urtez urte osatzen ari da



Milagros Sorarrain

Nekazaria

"Oso polita izan da jaia. Pentsatzen jarri eta emakumeak oso gutxitan aitortzen gaituzte egiten dugunagatik, eta zer arraio, beharrezkoak ikusten ditut horrelako ekitaldiak. Jende ezaguna eta jatorra ikusi dut antolaketan eta ikusle bezala etorri den jendearen artean, eta poza ematen du horrek."

Asteartetik larunbata bitarte joaten naiz San Martingo postura baserriko produktuak saltzera. Gaur kale egin behar izan dut; bezero asko ditut, eta astean zehar etortzen zaizkidanak jakinaren gainean jarri ahal izan ditut, Andoingo jai hau zela medio. Baina badituzte gazteagoak, batez ere larunbaterako ohitura hartuta daukatenak, eta igual haserretu egingo zitzaizkidan gaur ez azaltzeagatik.

Asteasun bizi nintzela, oso gaztetan hasi nintzen baserriko produktuekin zamatu eta Donostiarako bidea hartzen. Gero urtetara, nahiz eta Andoinera ezkondu, San Martingo postuarekin segitu izan dut. Aurtengo ekainean berrogeita hamabi urte egingo ditut.

78 urte ditut eta gazte sentitzen naiz, pozik joaten naiz merkatura, oso jatorrak baititut bai bezeroak eta baita ondoko postuetako lankideak ere. Semeek produktuak prestatzen eta Donostiarako joan etorria egiten laguntzen didate, eta San Martin azokako postutik bidaltzen ez nauten bitartean, hantxe segitzeko asmoa daukat".



Bea Garcia

Kirolaria

"Egitan, ezustean eta ilusioarekin hartu nuen ni izendatueta bat izatea. Ez naiz etorri urduri ekitaldira, baizik eta antolatu diguten guztiarekin gozatzeko asmoz. Geure garaian ondo pasatzeko jardun genuen futbolekin, ez genuen beste pretentsiorik. Baina adierazi didate nahiko aitzindariak izan ginela eta ez diet ukatuko hala izan ez zenik. Ez ginen heroi batzuk, gazteak eta emakumeak ginen, eta soilik gehien gustatzen zitzaiguna egitera irteten ginen futbol zelaietara. Hori bai, denetik entzun behar izaten genuen armailtetako ikusle gizonengandik; etxeko zuloa eta sukaldeko lanera bildatzen gintuzten askok. Kuriosoa da, baina horrelako perlat Madrilen eta Bartzelonan entzuten genituen batez ere; geure inguruan, ordea, sekula ez nuen sumatu halakorik."

Oiartzun eta Añorga -gure taldea- izan ziren bidea ireki zutenak emakumeen futbolaren arloan, Gipuzkoan. Añorgak egundoko palmaresa lortu zuten; nik ere hamar urtez Espainiako selekzioan jokatu nuen, baina gero, esate batera prentsan, albiste labor baterako mugatzen zen egiten genuen guztia. Egoera izugarri aldatu da, onerako; makina bat talde dauzkagu gaur egun, eta komunikabideek, direktiboek, futbol zaleek... arreta gehiago jartzen diete. Jada futbol femeninoa ez da geure garain bezain exotikotzat hartzen. Nolanahi ere, egoera normalizatzen ari den arren, pauso asko dago emateko oraindik".



Carmina Dominguez

Dendaria

"Oso polita eta hunkigarria izan da ekitaldia, ez nuen uste hainbestekoa izango zenik. Zorionak eman nahi dizkiet antolatzaileei, bere balioa daukalako herriko emakumeak ikustararaztea."

Hasieran, harridura eragin zidan izendapenak. Pentsatzen nuen, nire artean: zertara ote dator ni bezalako pertsona anonimoak nabarmentzea, milaka gara eta emakume langileak? "Zure urtetako ibilbideagatik merezi duzu", erantzun zidaten, eta tira, onartu egin behar!

Gaurko egun berezia zela eta, zetorrenarekin gozatea eta gero seme-alabekin bazkaritara joatea erabaki nuen agudo.

Esango nuke bizi guztia daramadala egunkariak saltzen, hamahiru urte betez geroztik, aitzak zera agindu zidanetik: "hartzazu makutoa eta hasi banatzen egunkariak!".

1966ko ekainean izan zen hori; Berrogeita hamar urtetara doa beraz! Parkeko kioskoa familiaren negozioa izan da beti eta horri eutsi izan diot; baserria aurrera eramane beharko bagenu bezalatsu. Kiosko hutsa izan zen lehenbizi, baina denda bihurtu da geroztik, udalari horretarako baimena eskatu eta gero. Gogorra da, eguneroko ardura eskatzen duen eginkizuna da, baina gehienek "periodista" gisa ezagutzen naute herrian, eta halaxe jarraituko dut osasunak laguntzen nauten bitartean".

Aldarrikatzailetik askotxo izan zuen bertso saioa



Amaia Agirre, Oihana Iguaran, Ane Labaka, Alaia Martin eta Eli Pagola.

Larunbat iluntzean bertso saioa antolatu zuten Basteron. **Amaia Agirre** jarritako ondorengo saioa aukeratu dugu: "Aspaldiko lau lagunek adostu dute elkarrekin bazkaltzeko, sagardotegi batean. Han barruan, Oihana txotxeroaren atzetik dabil; Ane, bere kuadrilako lagunekin ez beste guztiekin tertulian; Alaia, sagardo zipriztinekin ezeroso sentitzen da. Eta, azkenik, Eli mahaitik altxare ez da egiten."

Eli Pagola: Oihana basoakin ze nolako lata, Honek dauka gaurkoan irudi aparta. Txotxeroaren atzetik ez da aparta. Bestela atzerantza eroriko da ta.

Alaia Martin: Oihana nahiko zaila daukagu eramaten. Bi koma etiliko izan ditu aurtan. Harrapatu dut len momenturen batean, beheko baldetikan tragu bat edaten.

Ane Labaka: Oihanen egoerak jartzen nau trantzeko. Ze pertsona behar da hola mozkortzeko? Txotxeroan atzetik urduri antzeko, gogoal daukazu ziria sartzeko?

Oihana Iguaran: Beste jendearrekin jarraitu zazu zuk Eli, zure basoa nik betekoz ditut. Alaia, ez beldurtu zipriztrin batzun truk, nere basoarekin babestuko zaitut.

Eli Pagola: Ta Anek aldentzeko nolako artea. Honek dauka gurean merezi partea. Halare ez da izango nerretzat kaltea, hola afalduko det Aneren partea.

Alaia Martin: Ez dauka, ez harreman ta ez sentimendu. Bultza egiten zaitu ta paretik kendu. Beste kuadrilan sartu nahizta ez baimendu, gure kuadrilakoa dela pentsatzen du.

Oihana Iguaran: Edozein aitzakia aski aldentzeko. Ez da aukera txarra ondo pentsatzeko. Ane falta da eta ni lasai antzeko, gogoan naukan neska paretik kentzeko.

Ane Labaka: Zuek erdigunean, ni periferian. Ingles eskasarekin nabil mixerian. Hara topatu ditut gaurkoan erdian, hiru australiano sagardotegian.

Eli Pagola: Ta Alaia txinparta eta zipriztina saihestu nahi lituzke, halare ezina. Mejora litzateke zure alegina, behingoagatik maian jarriko bazina.

Oihana Iguaran: Alaia txotxean du nahiko zalaparta, hain degu neska fina ta neska aparta. Kupelaren ondotik ez zaitez aparta, katiuskak jantzita etorri zera ta.

Ane Labaka: Mila arazo ditu eta ez arazo bat. Etxean utzi ditu katiuskak sokak. Zipriztinen artean nolako borrokak, eta hori dauzkala aldatzeko botak!

Alaia Martin: Nik beti eramaten dut pare doblea. Pare bat ta bestea baino askoz hobea. Aizu, ez dut izan nahi al bada bordea. Zertako asmatu zen eskalziadorea?

Oihana Iguaran: Elik aurrez esan du: utzi lasai, utzi. Ta maian jarri zaigu babero ta guzti. Hiru plater hustu ta ez dago itsusi. Txuleta bazan baino nik ez det ikusi.

Ane Labaka: Sagardotegia da gaur gure sehaska. Txuleta ez jateko hainbeste garrantza. Beste hiruarekin eman degunez gaur nazka, eskerrak mantentzen dun Hernaniko kasta.

Alaia Martin: Kasta edanez gero maiz zaio bukatzen, bakardearekin hitz batzuk trukutzen. Len hala ikusi dut eta ez zait gustatzen: bere kopetarekin intxaurrak puskatzen.

Eli Pagola: Gaur emango dizuet hermaniar klasea. Komeni da hemendik ondo moldatzea. Hauek majo dijoaz, ta a ze trantzea. Gero nahiko dute nik kotxea hartzea.

Udalak "Oporrak bakean" egitamoia aurkeztuko du



Saharako haurrak udan eskualdera ekartzeko egitasmoia martxan dago.

Ezagun da Andoainen eta Urnietan azken urteetan Saharako haurrak hona ekartzeko Udalek, gizarte eragileek eta hainbat familiek egiten duten lana. Udalek uda honetan ere ekimena sustatzen jarraituko dute eta, zentzu horretan, Hurria Sahara elkarteak eta Andoaingo Udalak herriko familiak "Oporrak bakean" proiektuan parte hartzera gonbidatu dituzte.

Informazio osoa eskainiko dute datorren asteartean - Martxoak 15- Udaletxeko batzar aretoan arratsaldeko 18:30ean hasiko den hitzalditxoan. Bertan udal ordez-

Egitasmoari buruzko informazioa datorren asteartean eskainiko dute Udaletxeko batzar aretoan, 18:30ean hasiko den bilkuran

kariak eta aurreko urteetan haurrak etxeetan hartu dituzten familiak esperientzia azaltzen arituko dira.

Data horrez gain, informazio gehiago nahi duenak Gizarte zerbitzuetara jo dezake:

943304343

gizarte-zerbitzuak@andoain.eus

Etxeberrieta plazatik abiatuko da arratsaldeko 17:00etan

Larunbat honetan manifestazioa Andoainen

Erraustegiaren aurkako mugimendua etenik gabe lanean ari da, bereziki Andoainen. Duela gutxi, Ipar Haizea plataforma sortu eta ekitaldi sorta egingo zutela iragarri zuten. Eta horretan ari dira. "Arduraren aldeko giza katea" antolatu zuten otsailaren 20an, eta ondoren otsailaren 28an Zubietara egindako erraustegiaren aurkako martxan parte hartu zuten. Bertan eskualdeko eta Gipuzkoako osoko bi mila lagun inguru bildu ziren. Han bertan iragarri zuten Andoainen larunbat honetarako deitu duten manifestazioa.

"Osasunaren aldeko martxa. Erraustegiaren aurka" izenburupean, Etxeberrieta plazatik abiatuko da arratsaldeko 17:00etan. Aurreko larunbat goizean antolatzaileek prentsaurrekoa eskaini zuten, manifestaziora joateko deia egitearekin batera, atxikimenduen zerranda azaltzeko. Besteak beste, manifestazioarekin bat egin dute EH Bildu, Sortu, PCE, Irabazi, Ganemos edota Podemos alderdi politikoei, LAB sindikatuak, Ernai gazte mugimenduak, Eguzki talde ekologistak,



Nafarroa plazan egin zuten manifestaziorako deialdia, aurreko larunbatean.

"Osasunaren aldeko martxa. Erraustegiaren aurka" izenburupean, Etxeberrieta plazatik abiatuko da arratsaldeko 17:00etan

Stop Desahucios edota Duintasuna mugimenduek eta baita herriko elkarte askok ere. Besteak beste, Burdina taldea, Santakruz jai batzordea, Irunberri, Gaztetxea, Batukada feminista, Pilota eskola edota Maizorri txalaparta eskola.

Eskualdeko eta Gipuzkoako elkarte gehiagok ere bat egin dute larunbat honetako manifestazioarekin.

Deialdia egiteko deitu zuten prentsaurrekoan, erraustekak osasunean sor dezakeen kaltean sakondu zuten. Berriki GEIS medikuen plataformak eman dituen datuak aipagai izan zituzten, eta euren ondorioen arabera erraustegiaren gunetik gertu dauden gizakien onorio latzak sortzen dira, hala nola, malformazioak edota minbizi kasuen areagotzea.

NEGU GIROKO LILATOIA, AURREKO IGANDEKOA



Aiurriko harpidedun izatearen abantailak:

TXOTX!

Harpidedun egin
zaitetz eta etxean
jasoko duzu:
943 300 732
idazkaritza@aiurri.eus

Sarasola
943 690 283
ASTEASU

Gaztañaga
943 591 968
ANDOAIN

Aburuza
943 692 452
ADUNA

Altuna
943 554 917
URNIETA

Oianume
943 556 683
URNIETA

Larre-gain
943 555 846
EREÑOZU-HERNANI

R. Zabala
943 690 774
ADUNA





ANA CARRERE • ANDOAIN

Hiru eguneko egonaldia Saharako kanpalekuetan

Berrogei urtetik gora dira Marokok Saharako lur aberatsak inbaditu eta lapurtu zituenetik. Saharako herriak desertura ihes egin behar izan zuen, herriarekiko harrotasuna eta duintasuna bidelagun bakarizat harturik. Europak, eta bereziki, Espainiak, deus egin gabe. Denbora tarte horretan promesa handiak entzun dituzte herrialde garatuetatik eta Nazio Batuen erakundetik, arrazoia eurei emanez eta Marokori kenduz. Eutsi, horixe da geroztik egiten dutena. Sahara Okzidentalean seme-alabak euren lurren jabe izango diren itxaropenez. Noizbait justizia egingo delakoan.

Gaur egungo errealitatea honakoa da: Herri osoa desertuaren erdian dago. Ezertxo ere ez dute. Han ez dagoelako ezer. Ez dago bizitza egiteko modurik, ez dago itxaropenik. Etorkizunik ez. Gauza bakarra dute: Duintasuna.

Saharako herriak ez du laguntzen menpekotasunera makurtu nahi, ez du karitatetik jasotakoagatik bizi nahi. Euren lurretara itzuli nahi dute.

Injustizia gehiago zerrendatuko nituzke, nazioarteak ahaztu dituela edota egunero-kotasunean pairatzen duten sufrimendua eta mina. Itxaron dezatela esaten dieten bitartean, mugitzen ari dira. Horregatik nahiago dut hango jendeaz hitz egitea, hutsetik hasita sortu duten gizarteaz. Ziurrenik akats askorekin, nork ez ditu akatsak egiten? Eskuekin eta ezereztatik gizarte egitura eraiki dute, Afrikako toki askotan baina azpiegitura ho-beak lortuz.

Nabarmendu daitekeen alorretakoa hezkuntzarena da. Espainiako kolonizazio garaian alfabetatze maila hutsaren hurrena zen. Gaur egun %99koa da alfabetatze maila.

3 eta 16 urte bitarteko haur eta gazte guztiak eskolara doaz. Denek eskolara joateko betebeharrak dute, eta dohai-nik da. Haurtzaindegiak dituzte 1-3 urte artekoentzat. Heziketa berezia behar duten neska-mutilentzat ere gelak dituzte. Lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, heziketa profesionala eta unibertsitate mailako ikasketak egin ditzakete lankidetzat hitzarmenak dituzten Kuba edota Argelia herrialdeetan. Helduen heziketarako eskola eta emakumeen eskola ere badaude.

Osasun arloa da nabarmendu beharreko beste alorretakoa. Daira edo herrialde bakoitzean oinarrizko osasun etxea eta farmazia bana dute. Kanpaleku edo Wilaya bakoitzeko ospital bat dago eta azkenik Rabouni kanpalekuen hiriburuan ospital nagusia dago.

Nazioartetik iritsitako elikagaien kudeaketa ezagutzeko aukera izan dugu, orain egun gutxi egin dugun bisitaldian. Frente Polisarioak gardentasunari garrantzia berezia eman nahi dio eta kamioiak iritsi orduko jasotako laguntza informatizatu eta kontrolatu egiten dute.

Hamabostean behin, bertako telebistan hamabost egunetarako pertsona bakoitzeko banatuko den janaria zein izango den iragartzen dute. Banaketa beti ere jasotakoaren arabera izaten da.

Berdintasunik gabeko gizarte justurik ez dago. Horregatik hango emakumeen lana nabarmendu nahi dut. Saharar errepublikako gizarte eta ekonomia mailako egituratan, emakumezkoak berdintasuna lortzeko borrokan ari dira. Hango eta hemengo emakumeok lan asko egin behar dugu alor horretan. Orain arte

egindakoa asko izan da. Nahiz eta hango asko musulmanak izan, Saharako herrialdea akonfesionala da. Garrantzia handikoa da hori. Emakumea Wilaya delako kanpalekuen antolakuntzaren erdigunean dago. Erantzukizun handia hartzen dute hekuntza eta osasun mailan. UNMS Saharako emakumeen nazio batasuna elkarteak ezagutu genuen (euren webgunean sartzea aholkatuko nizuke). Botere-tzean eta berdintasunean sarkontzeko gunea da. Emakumeekin eta emakumeen arteko eztabaidarako tokia da. Bere eskubideen aldeko konzientzia hartzeko eta erakunde politikoko modura erantzukizuna hartzeko baliagarria. Nola ez, gune horren bitartez berdintasunean parte hartzea eskatzen ari dira.

Emakume haiekin eztabaidatzeko aukera izan genuen, euren helburuak eta egiten duten lana ezagutzearekin batera. Aurrez hitzartutako ezkontzak gutxienekoak dira. Dibortziotako aukera badago. Noski, ez gaude denean ados eta ikuspegiak ez dira beti berdinak izaten. Galdera zehatza eginez, biolentzia matxista ez zela arazo bat zioten. Ia kasurik ez zegoelako. Harridura handia sortu zuen horrek gudan. Gure jaimara itzulita, gure gidariarekin eta familiarekin tea hartzen genuen bitartean, horri buruz hizketan hasi ginen. Harridura azaldu zuten, bazituztelako ezagunen artean genero indarkeria jasandako kasuak. "Hori esan al dute?" izan zen haien erantzuna. Denuntziarik ez da izango, baina kasuak egon badaude. Lan handia dago egiteko: planifikazio familiarra, genero indarkeria, gizonaren ardura familiarra, emakumezkoaren parte hartzea bizitza publikoan eta politikokoan (ez dugu ahaztu behar Europako herrialdeetan hautes zerrendetan emakumezkoen parte hartzea ziurtatzeko lege bat ezarri zela) baina hori guztia non adierazi eta eztabaidatzeko askatasun osoa dago. Munduko emakume askok ez dituzte aukera horiek.

Hiru eguneko egonaldia egin dugu, intentsitatez beterikoak. Kanpalekuetan bizi-modu gogorra izan arren, Saharako emakumezko eta gizonzkoek duten guztia eskaini ziguten. Abegikortasuna, hitza, duintasuna eta indarra. Horixe da duten guztia, eta guk ez genuen gehiago behar.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Kongresua pil-pilean

Estatuko Kongresuaren argazkia erabat aldatu da, itxuraz alegia. Orain artekoa, gizonzkoek traje gorbatadunak, gehienez zaplada bat bizkarrean eta hitzetan eta diskurtsoetan ere oso neurtuak. Emakumezkoak ere dotore jantzita, agian irekiagoak bere adierazpenetan baina, beti ere formak gordez. Oraingoan, argazkia erabat aldatu da. Lehengoek lehengoan jarraitzen dute eta berriak beste itxura bat eman diote. Honekin ez dut esan nahi lehengoak dotoreagoak zirenik, ezen dotoretasuna ez baitago hainbeste jantzien barnean, baliotan baizik. Kongresuko presidentek ere orain artekoan ez du lan askorik izan diskurtsoak zuzentzen, eta nahiko lasai ibili dira. Oraingoak, ordea, beste etorkizun bat dauka. Galde diezaiotela Patxi Lopezi. Komeriak izanen ditu egoerak lasaitzen eta bere boterea erakusten. Oraingoan bi gizonzkoen arteko musua ere ikusi da eta, horrek ere, asaldatu du Kongresua.

Itxurak itxura, Kongresuan presidentziara nor aurkeztu zain zirela. Eta horra hor, erregeak alderdi sozialistari agintzen dion, oraingoan Rajoyk ezin duelako edo ez duelako nahi izan. Eta Pedro Sanchez Sozialisten buruak onartu ere bai. Eta hasi da handik eta hemendik bidelagunak erakarri nahian. Eskumara ala ezkerreara egin behar du; horra hor bidegurutzea. Eskuman Rajoy dauka eta ez du gustuko. Bestea Ciudadanos, baina honek ere ez du gainontzeko taldeen aldetik sinpatia handirik pizten. Ezkerrean, berriaz, Podemos, Compromis, IU eta beste zenbait talde ditu, hala nola, EAJ-PNV, katalanak eta seguruena beste zenbait talde ere.

Again, nahiz eta berak ezkerretik jo nahi zailtasun asko ditu bere etxeko zenbaitek ez baitute ongi ikusten Podemosekin harremanetan jartzea eta bera bikote gisa hartzea. Presio asko ditu Pedro Sanchez sozialistak gaztekeraz "barones" edo deitzen diren horien aldetik. Horiek denek nahi dutena da Ciudadanosekin joatea. Aldi berean, beste ezkerreko zenbait indar ere mugitzen hasi dira ezkerreko eta aldatuta ekar dezakeen gobernua osatzeko. Baina, hor non jakiten duten ezkerreko indar hauek berriekin harremanetan dauden bitartean Sozialista eta Ciudadanosek ituna egina zeukatela. Ho-

ri ez bada adarrak jotzea! Eta nola ezkerreko indarrak Ciudadanos eskumakotzat jotzen duten ba mahaitik altxa eta ospa egiten dute. Oso normala.

Gauzak horrela bada, hor doa Pedro Sanchez Ciudadanosen eskutik Kongresura, aldarera. Jakina, bere diskurtsoari ezkerretik erantzun gogorrak doazkio. Jakin ez daki nola justifikatu ezkerreari jarri dizkion adarrak eta ahaleginak eta bi egiten ditu Podemos batik bat berera ekartzeko gonbidatu gisa. Eskumatik ere, PPTik kritika gogorrak jasan zituen.

Kongresuari azalezko itxuratik haratago eman zion edukia Podemoseko Pablo izan zen. Eta, neurri batean hori ere normalizat hartu behar da. Felipe Gonzalez buruz esan zuena, karearena etab., hemen denok jakin badakigu. Eta horrelako ikamika edozein Parlamentutan gertatzen dira. Hasieran, azaleko itxura aldatetaz aritu naiz, ba, edukian ere mugimendu sozialetatik datozen indar berri horiek beste bizitasun bat eman diote. Baina, anekdotak aparte, nire irudiko programan ere sartu ziren eta alde handiak ikusten dira. Eta alderdi gehienak kritikatu zuten. Euskal alderdiek barne. Noski, ez zuen hemengo egoera aipatu ere, eta, jakina, Ciudadanosen mamua hor dago eta azkenean, Pedro Sanchez belarriak makurtuta, Ciudadanosekin batera ezezko galanta bizkarrean zutela atera ziren. Eta bigarrean berdin.

Eta orain: Ba hasierara baina, jakina. Orain leku guztietan bikoteak elkarrekin azaldu nahi du. Ezkerreko indarrek bederen, ezezkoa emango diote, eta normala. Zertan ari dira jokatzeko? Ikusi beharko da zer nolatan amaitzen den historia hau baina sozialistek ez diezaiotela Podemosi errua bota, berak baitira errudunak.

ARNALDO OTEGI

Arnaldori ongi etorria eta disfruta dezala askatasunaz, familiaraz, naturaz. Joango da informazioa jasotzen. Esaten dituenak errespetatu dituzagun. Ez dudana ulertzen da Estatuko zein hemengo hedabideek ze katramila sortu duten Arnaldok Podemosi prozesu eraikitzaileak defendatzeko esan dionean. Honek, berriz, zera erantzun dio: Beraiek ez direla Independentistak. Hori bage-nekien. Eta zer? Bat egiten dute erabakitze eskubidean eta horretan egin beharko dute lan. Hori lortuta, herriak erabaki eta errespetatu dezala. Ez diot inongo arazorik ikusten. Puntu hori ere argitzen joanen da. Beste kontua da Arnaldok alde bakarreko bidetik joan nahi duen, ala ez. Izango da denbora hori argitze-ko. Zorionak Arnaldo!



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza



KIROL ALBISTEAK

Zestaren garai oparoa “Jai Alai Blues” dokumentalean

Zesta punta kirol jarduera ezaguna izatera iritsi zen nazioartean, bereziki Ameriketako Estatu Batuetan. Dozenaka izan ziren hara joandakoa eskualdeko eta Euskal Herri osoko kirolariak. Garai hu-

ra gogora dakarren ikus-entzunezko batek zeresan handia izan zuen Donostiako Zinemaldian, “Jai Alai Blues” izenekoa. Basteron eskainiko dute datorren asteartean, 19:00etan hasita.

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Nahiko bitxia izan zen Barrondoren kasua, 16 urterekin debuta egin eta berahala hasi baitzen beteranoekin jokatzeko, Bolivarko Txikitorekin eta antzekoekin.

Geurean betidanik eduki izan dute indarra pilotari euskaldunak eta zesta punta profesionalari lotutako mitoen. Patrikera bete diru eta parrandaz parranda ibiltzen zirela esan izan da. Luisek hartu du hitza, zati handi batean uste guzti hori desmitikatzeko: “Guk ere entzuten genituen horrelako istorioak, guere aurreko pilotarien belau-naldiengandik. Haiekin akaso gertatuko zen hori. Baina guxtiago gurekin. Egia da pilotaria etxetik urrun bizi denean, gaztea dela, ezkongabea, dirua daukala poltsikoan, etxekorik ez ondoan kontrolatzeko... eta orduan tentazioa eduki dezakeela bizimodu arin samarra egiteko. Baina aldarte horretan beteranoek funtzio garrantzitsua jokatzeko zuten: hasieran markatzen zizuten bidea, eta hortik aurrera zeuk erabaki behar zenuen nondik segi, nondik ez... Bestalde, hau ere esan beharra dago: igandean ez gainerako egunetan jokatzeko genuen, eta gauean ez genuen denborarik edukitze ezertarako. Gure garaiari hasi ziren AEBtan arauak,



poliziaren kontrola, ordutegiak... jartzen”. Barrondok gehitu duenez, “legez, goizeko 02:00etarako dena isten zen eta 21 urte arte ezin zen edan... baldintza horiek kontuan hartuta, nik ez nuen gauz atera-zeko aldarerik eduki ia ia”.

Euskal pilotariak fama handi samarra edukitakoak dira AEBtan. Luis, Fernando eta Jonek aparteko kategoria sozialeko partaide izate hori ezagutu zuten, nahiz eta gainbehera hasia zen ordurako. “Partida edo funtzioen aurretik autografoak sinatzeko tarte antolatzen zuen enpresak, eta jende asko hurbiltzen zen guregana sinadura edo argazkia lortzekotan. Tarteka, jarraitzaileen gutunak jasotzen genituen. Prentsak ere elkarriz-

ketaren bat edo beste egiten ziguten...”.

Hollywoodeko artistez inguratuta bizitzea ere izan da indar eduki duen beste mitoetako bat. “Hori iraganeko kontuak dira, izatekotan ere. Egia da gure partidak ikustera eta dirua jokatzera aktoreak, kirolari famatuak eta bestelako pertsonai publikoak hurbiltzen zirela. Orduan enpresarioek beren negozioa promozionatzeko probesten zuten: sariak ematera jartzen zituzten edo eta aldageletara jaistera gonbidatzen zituzten gurekin argazkia atera zezaten. Nolanahai ere, ez pentsa hainbestean gertatzen zenik hori. Nik oraintxe gogoan Paul Newman eta Roberto Duran boxeolaria dauzkat, ez besterik”.

Frontoi industrialetan dirua barra-barra ibiltzen zela egiaztatu du Jonek, hiru pilotari ohien izenean hitz eginez: “Soldatari dagokionez, oraingo pilotarietako baino gehiago irabazten genuen; baina ez jendek uste duen adina”. Dirua benetan erruz, apustuetan jokatzeko zen, nonbait, Luisek adierazi duenez: “Guk ezagutu izan ditugu egunak, non orduko milioi bat dolar jokatu zirenak. Halako egunetarako, en-



Ezkerreko argazkian, Ogiza, Medina, Sarasua eta Luis Urbistondo Orlandon 1978an. Goian, Fernando Urbistondo 1984an saria jasotzen, txapelketa bat irabazi ondoren.

presak jatek batekin akordioa zeukan egina: milioi batek aurrera, txanpana, otarrainak eta abarrak jaisten zizkigun aldageletara!”.

Hamar mila pertsonen jositako frontoitan jokatu izan dute hirurek ere. “Bilbokoak hiru milako kapazitatea dauka eta betetzen denean, hango burrunba egundokoa iruditzen zaigu. Bada egin kontuak Ameriketara zer izaten zen!”, dio Jonek. Fernandok, bere aitak sentitu zuen harridura galanta dauka gordeta memorian, Ameriketara semeak ikustera joan zenean behin: “Euskal Herriko frontoiak eta zezen plazak ondo ezagutzen zituen, baina sartu zenean frontoian, *hau zer da!* atera zitzaien barru-barrutik”.

ETORKIZUNA, ILUN

Ia mila pilotari zenbatuko ziren 70 eta 80ko hamarkadatan Ameriketara. Ehunera ez dira iristen gaur egun. Zesta punta profesionalaren dekadentziaren hastapenak gertu-gertutik bizi izan zituzten hiruek ere. Fernandok faktore bat baino gehiago aipatu ditu, gainbehera ulertzeko: “Batetik, greba luze hark (1988-1999) ez zion batere lagundu zesta puntari.

Ordurarte, diru apustuen panorama eta konpententzia nahiko urria zen: gogoratzen naiz Floridan, adibidez, kirol talde profesional bakarra zegoela, futbol amerikarrekoa zena. Baina orduz geroztik edo geroxeago hasi ziren kirol guztietan taldeak profesionalizatzen. Aldi berean, orduantxe jarri zen martxan lehenbiziko loteria, dolar batekin aberasteko aukera eskaintzen zizuna, eta lasterrera etorri edo zabaldu ziren beste mila aukera dirua jokatzeko. Bestalde, urtean zehar sei hilabetez bakarrik irekitzen ziren frontoiak; publikoari ez zitzaion betarik ematen ikuskizun berberekin aspertu zedin”.

Etorkizun iluna ikusten diote zesta puntari profesional izan diren hiru pilotarietako. Luisen arabera “hurrengo urtetan, munduan emertenteak diren herrialdeetakoan (Brasil, Txina...) negozioa ikustearren poderioz ez badute bultzatzen, panorama beltza dauka zesta puntak”.

Profesionalismoaren harrobi izan den afizionatu mailak hegoak altxako dituen itxaropena dauka Igor Lizasoainek: “Xistera izeneko proiektua sortu dugu Euskal Herriko pilota elkarte guztiek, eta emaitzekin baikor gara. Pilota eskolak indartu nahi ditugu, kalitatezko txapelketak antolatu urte osoan... Gazteak erakartzeko orduan ikusten dugu zailtasunik handiena, eta horretarako zesta puntaren produktua ikusgarri, salgarri... bihurtu nahi dugu. Horretan, telebista ezinbesteko elementutzat daukagu. Euskal kultura munduan zabaltzen izugarri lagundu duen kirola, geure-geurea eta ezin ikusgarriagoa, ezin dugu bazterrean utzi”.

Jai Alai Blues dokumentala
19:00. Bastero.
Martxoak 15, asteartea.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Krossean ibilbide polita osatzen ari diren gaztetxoak

Aurtengo eskolarteko Euskadiko kross txapelketa Bizkaiko Berriz herrian ospatu zen aurreko igandean. Bertan Urnietako Egape Ikastola ordezkatzuz lau korrikalari izan dira: Ander Ezenarro, Unai Iraola, Jon Tolosa eta Gorka Lopez de Arregi. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hamabi talde lehian aritu ziren. Eguraldi eta ibilbide traketsa izan zuten korrika egiteko, elurra eta guzti. Urnietar gaztetxoek taldeka zazpigarren postua lortu zuten.

Aurretik otsaila bukaeran Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuten Legazpin, hirugarren postua lortuz eta bide batez Euskadiko Txapelketan partaidea izateko eskubidea eskuratuz.

2002 eta 2003 urtetan jaiotako gaztetxoak "Eskola kirola" egitasmoan atletismo saile-



Ander Ezenarro, Unai Iraola, Jon Tolosa eta Gorka Lopez de Arregi.

ko kimuak dira. Hernaniko atletismo taldean ari dira eta azken hiru urte hauetan Gipuzkoan ospatu diren kross garrantzitsu guztietan izan dira: Donostiako nazioarteko krosetan, Elgoibarko krosetan, Arratekoan, Txingudikoan,

Hernanikoan eta beste batzuetan.

Gipuzkoako federazioaren eskutik Aste Santuetan Saloun egonaldia egingo dute. Hainbat erkidegoko korrikalarirekin elkarbizitzeko eta lehiatzeko aukera ere izango dute.

Kirola eta euskara bat eginik

Andoingo Udalak euskararen erabilera handitzeko hitzarmenak sinatuko ditu herriko hamar kirol elkarterekin. Ekitaldia ostegun honetan izango da, martxoak 10, 19:00etan hasita

Basteron. Sinatzaileak honako taldeak izango dira: Ganbara saski taldea, Andoain Judo elkarte, Andoingo txirrindulari eskola, Euskalduna andoaindarraren futbol taldea, Euskalduna

mendigoizale taldea, Gazteleku pilota eskola, Leizaran eskubalo kirol kluba, Leitz kirol kultur elkarte, Oskarbi gimnasia erritmiko elkarte eta Zumeaterra atletismo elkarte.

Txaloak UKE pilota atalari

Iker Elgarresta, Aitor Aldunberri, Julen Loitegi eta Eñaut Esnaola Gipuzkoako trinkete txapelkun berriak dira, urnietarren eta bereziki UKE pilota atalaren erakustaldi berrian. Miala guztietan finalera iritsi dira eta seitik bost txapel lortu dituzte. Txalo egiteko eta zorionak emateko modukoa da. Euskal Herriko txapelketei ekingo diete orain. Irurako trinketea jendez gainezka zegoela, hauexek bi finalen kronikak:



Iker Elgarresta eta Aitor Aldunberri



Julen Loitegi eta Eñaut Esnaola.

URNIETA 40-19 PAGAZPE

Julen Loitegi-Eñaut Esnaola Seniorrak. Erakustaldi aparta esperientzia eta sari asko lortu dituzten usurbildarren aurka eskainitakoa. Klubeko ordezkarien ustean Iparraldeko bikote onenen aurka lehiatzen hasteko unea iritsi da.

GRAVNI TXAPELKETA

Imanol Odriozola, Julen Loitegi eta Eñaut Esnaola pilotariak Gipuzkoako GRAVNI txapelketa ezagunean, zeinean Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko trinkete jokalaririk onenak lehiatzen diren. Zorte on!

URNIETA 40-19 OIARPE

Iker Elgarresta-Aitor Aldunberri Kadeteak. Ikerrek hogeitanto lortu zituen hasierako jokaldietan eta Aitor jaun eta jabe izan zen atzeko lerroetan. Oairtzuarrek ezer gutxi egin ahal izan zuten.

Hasiera negu gorrian



Sari banaketa ekitaldiko argazkiak. Irudi gehiago andoingo.eus webgunean.

Andoingo Txirrindulari Eskolak hogei-ta hamaikagarren denboraldiari ekin zion, herrian bertan:

Alebinak:

1. Dani Fursenko (Andoingo)
2. Igor Barandiaran (Ampo)
3. Markel Galparsoro (Ampo)
4. Igoia Pikabea (Andoingo)
9. Iker Balbas (Andoingo)
15. Ibai Vela (Andoingo)
17. Izaro Zuriarrain (Andoingo)

Infantilak:

1. Gaizka Aranburu (Ampo)
2. Joanes Telleria (Ampo)
3. Iker Iribar (Limousin-Oriako)
8. Ibai Omeñaka (Andoingo)
10. Iker Atxaga (Andoingo)
12. Unai Galarza (Andoingo)
14. Laiene Pikabea (Andoingo)
15. Aimar Murua (Andoingo)
17. Maddi Rodriguez (Andoingo)
19. Unax Azpiroz (Andoingo)

Futbola, asteburuko partidak

ERREGIONAL OHOREZKOA

25. jardunaldia:

Hernani 2-0 Euskalduna

26. jardunaldia. Larunbata, 12:

Mutriku-Euskalduna. 16:30.

PREFERENTE MUTILAK

22. jardunaldia:

Urnieta 2-2 Mariño

23. jardunaldia. Larunbata, 12:

Dunboa-Urnieta. 16:00.

Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak:

Oiarso 59-51 Ganbara SenM

Hernani 52-32 Ganbara JubM

Ganbara InfM 43-63 LEK

Datorren jardunaldia:

Ganbara SenM-TAKE

19:15. Allurralde.

Martxoak 12, larunbata.

Areto futbol txapelketa

A taldea, emaitzak:

Ozu 2-5 Aure Maiton

Keler 8-1 Txalaka

Ekhia 6-7 Centro Extremeño

B taldea, emaitzak:

Bar Egur 10-1 Drink Team

Academia GF 4-7 Ekaitz

Pausoka 5-3 Ondarreta

Urnieta, Andoainen gainetik



Leizaran 19-25 Urnietarrak

Senior Neskak. Urnietarrentzat izan zen garaipena, eta Euskal Ligako bigarren jardunaldia izanik urnietarrak bi garaipenekin sailkapeneko

lehenengo postuan daude. Aurrez aurre jokoa, horrela ibili ziren partidaren hasieran. Urnietarrek defentsan gehiago estutu ostean bi goleko errentarekin iritsi ziren atsedendira (12-14). Bigarren zatian hasiera lehenengoaren amaiera bezalakoa izan zen eta horri esker golen errenta seikoa izatera iritsi zen. Lortutako abantaila hori ondo kudeatzen asmatu zuten, amaieraraino.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etex etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus
Publizitatea: Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzailak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnieta).
Inprimategia: Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

MARTXOAREN 11TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

- Andoain, Bastero**
- "La chica danesa". Igandea, 13. 19:30. Astelehena, 14. 19:30, 22:00.
 - "Jai Alai Blues". Asteartea, 15. 19:00.
 - Datorren asteburuan: "Cien años de perdón". Martxoak 19, 20 eta 21.
- Urnieta, Sarobe**
- Zinema haurrentzat: "Hotel Transilvania 2" 16:00. Martxoak 20, igandea.

Batzarrak

- Urnieta**
- Abian ezker abertzalearen prozesuaren bigarren batzarrak. 10:00 Lekai. Martxoak 12, larunbata.
- Asteasu, Udaletxea**
- Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren urteko biltzar nagusia. 11:00 Ekitaldi aretoa. Martxoak 12, larunbata.
- Andoain**
- Olagain jubilatuen elkartearen urteko batzar nagusia. 17:00 Musika eskola. Martxoak 12, larunbata.

Gazteak

- Andoain, Gazte Lokala**
- "Instant lean" argazki rallya martxoaren 11 bitarte.
- Urnieta, Gaztelekua**
- Aste Santuko jarduerak Martxoak 21, astelhehen: Eskubaloi txapelketa. Martxoak 22, asteartea: Iruneko "El Establo Pirata" skate parkera irteera. Martxoak 23, asteazkena: Sukaldaritz tailerra. Informazio bilerak: 18:30. Gaztelekua. Martxoak 16, asteazkena. Izena emateko azken eguna: Martxoak 18, ostirala.

Martxoak 8

- Urnieta**
- Martxoak 12, larunbata 21:30 Oianume. emakumeen afaria. Lankide Aurrezki Kutxan eman behar da izena.
 - Martxoak 13, igandea 19:00 Sarobe. "Ene maite kuttun guztiak", Anne Sexton poetan oinarrituriko emanaldia: Harkaitz Cano, Ainara Gurrutxaga eta Iban Urizar.
 - Martxoak 31 bitarte "Emakume begiradak" Iñaki Vergararen argazkiak ikusgai Lekaion.

Ikuskizuna

- Andoain, Bastero**
- Pintto-Pintto haur ikuskizuna. 17:00. 4 euro. Martxoak 13, igandea.

Diaporama

- Urnieta, Sarobe**
- Wukro Afrikako lurraldeetan egondako Ioritz Paulis gaztearen lekukotza. 19:00. Doan. Martxoak 16, asteazkena.

Hitzaldia

- Andoain, udaletxea**
- Hurria Sahara elkarrekin eta Udalak herriko familiak "Oporrak bakean" proiektuan parte hartzera gonbidatu nahi dituzte. Bilkuran aurreko urteetan haurrak hartu dituzten familiek parte hartuko dute. 18:30 Pleno aretoa. Martxoak 15, asteartea.

Farmaziak

- Eskualdea**
- Andoain: Zatarain. Urnieta: Aizpuru (Latxunbe Berri, 11. Hernani).
 - Gauez: Urrutia (Hernani). Martxoak 12 eta 13.

Martxoak 8

- Andoain**
- Martxoak 10, osteguna 17:30 Kultur aniztasunaren saioa gazte lokalean.
 - Martxoak 11, ostirala 21:30 Olatz Zugastiren kontzertua.
 - Martxoak 12, larunbata 20:00 Las Chirigóticas taldearen "Juanita Calamidad" antzezlanak.

Manifestazioa

- Andoain**
- "Osasunaren aldeko martxa. Erraustegiaren aurka". 17:00. Etxeberrieta plaza. Martxoak 12, larunbata.

Karta jokoak

- Urnieta**
- Eskualde mailako karta-joko txapelketa. Izen ematea hilaren 11n amaituko da. 17:00. Denda Berri. Martxoak 15, asteartea.

Tailerrak


- Urnieta, Sarobe**
- Martxoaren 16a baino lehen eman behar da izena, Saroben bertan. Doan. **Dantza Garaikidea** Aukeran konpainiaren eskutik. 09:30-11:30 12-15 urte. 11:30-13:30 8-11 urte. Martxoak 21, 22 eta 23. **Hip Hop tailerra**, 12-14 urtekoentzat. Sergio Nguema dantza irakaslearen eskutik. 10:30-12:30. Martxoak 29, 30, 31 eta apirilak 1.

Kanpaina

- Andoain**
- Mankomunitateak deituta, "Birziklatu tentuz eta zentzuz" kanpainari buruzko informazio puntua. 10:00-14:00. Juanita Alkain plaza. Martxoak 12, larunbata.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK ANDER



Hitz egiten ez dakit, baina martxoaren 5ean ederki tira nizun belarritik, aitaxo! Muxuak Nere, Oihana eta familia osoaren partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK ALAIA



Martxoaren 8an Alaia gure bizitzako oparirik politenak 4 urte bete ditu. Zorionak maittia! Besarkada handi bat. Etxekoak.

ANDOAIN


ZORIONAK AINTZANE



Martxoaren 13an Aintzane gure etxeko sorgintxoak 4 urte bete ditu, asko maite zaitugu bihotza... Zorionak eta muxu bat etxekoan partez..

URNIETA

ZORIONAK LIHER



Martxoaren 8an Liherrek 9 urte bete zituen, mutil jator bihurtu zaigu. Zorionak Liher!! Erkuden, Aintzane, Iñaki eta Ainhoan partez.

URNIETA

ZORIONAK ANE



Anek 4 urte bete zituen otsailaren 27an, zorionak printzesa! Muxu erraldoia Aintzane, Erkuden, Iñaki eta Ainhoan partez.

URNIETA

ZORIONAK ENEKO



Eneko Garciak 5 bete ditu martxoaren 11n. Zure familia guztiaren partetik, muxu asko. Askok maite zaitugu bihotza.

URNIETA



ZORION AGURRAK Erraza da, eta dohainik. Emailaz: diseinua@aiurri.eus. Webgunea: aiurri.eus.

MERKATU TXIKIA:

Mutiko bat elkarbanatzeko pisu baten bila dabil, Andoain edo Tolosaldean. Hilabete batzutarako eta astearterako litzateke. 667 050 264. 948 453 413. Merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus

Olatz Zugasti zuzenean, Basteron ostiral honetan

Musikari ezaguna disko berria aurkezten dabil Euskal Herrian barrena, eta ostiral honetan Bastero kulturgunean "Ur goiena, ur barrena" kantu berriak eskaintzen ari tuko da bere taldekideekin batera. Egileak aitortu duenez, bere hitzetan inoiz baino lan pertsonalagoa dago, kantu gehienak berak idatzi, konposatu eta moldatu baititu. Herriarekiko kezka agertzen ditu behin baino gehiagotan.



Olatz Zugasti zuzenean
Martxoak 11, ostirala 21.30. Bastero. 12 euro.

Parelaideak:

Julen Alonso teklatuak. Ander Ederra gitarra. Joanes Ederra baxua. David Gorospe bateria.